

11/22

irizpena

Trantsizio energetikoari eta Klima-aldaketari buruzko

Lege-Aurreproiektuaren gainekoa

Bilbon, 2022ko uztailaren 27a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 11/22

I.- AURREKARIAK

2022ko ekainaren 24an, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren idazki bat sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, "Trantsizio energetikoari eta Klima-aldaketari buruzko Lege-aurreproiektuari" buruzko txostena eskatzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3,1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Arauaren xedea da gehienez ere 2050ean Euskadin klima neutraltasuna lortzeko esparru juridiko egonkorra ezartzea eta lurraldearen klima aldaketarekiko erresilientzia gehitzea da. Horretarako, trantsizio bidezkoa, jasangarria, soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa bultzatuko da, ekitatea eta elkartasuna bermatuz.

Berehala agiriaren kopia Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei bidali zitzairen, proposamenak eta iritziak igorri eta guztiak lan batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoari jarraiki. Garapen Ekonomikorako Batzordea 2022ko uztailaren 15ean bildu ostean, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin da batzordearen osoko bilkurak lan dezan. Bertan, uztailaren 27an aho batez onartu da.

II.- EDUKIA

Trantsizio energetikoari eta Klima-aldaketari buruzko Lege-aurreproiektuak honako atal hauek ditu: zioen azalpena, sei kapitulutan egituratzen diren 46 artikulua, 8 xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, hiru azken xedapen eta eranskin bat.

Zioen azalpenak 9 atal ditu. Lehenengo 4etan (I-IV) klima-aldaketaren inpaktu negatiboak eta horiek arintzeko nazioarteko, Europako, Estatuko eta Euskadiko erakundeak ezartzen ari diren jarraibideak aurkezten dira.

V. atalean ezartzen den bezala, trantsizio energetikoaren azken helburua mix energetiko deskarbonizatu, jasangarri eta dibertsifikatura iristea da, kostu lehiakorreko energia seguruaren hornidura ekarriko duena. Horretarako, energia aurrezteko eta eraginkortasun energetikoa lortzeko neurriak arian-arian ezarri behar dira, energia berriztagarriak sorkuntza elektrikoan eta erabilera termikoetan sartu behar dira, eta lehen sektorea, eraikuntza, industria eta mugikortasun-eredu jasangarriak garatu behar dira.

VI. atalean, aztergai dugun gaiaren egoerari buruzko diagnostiko labur bat egin da, eta hortik abiatuta, justifikatu egiten da esparru juridiko bat onartzea, 2050ean berotegi-efektuko gasen (aurrerantzean, BEG) isurketan neutraltasuna lortzeko estrategiak, ekintza-planak eta tresnak zehaztu eta abian jarri ahal izateko, bai eta klima-aldaketarekiko erresilienteagoa den lurralde baterantz aurrera egiteko ere, klima-trantsizioaren eta klima-aldaketaren arloko erakundeen arteko koordinaziorako mekanismoak eta organoak aktibatuz.

Aldaketa-prozesuak, 30 urteren buruan, euskal energia-sistemaren erabateko aldaketa ekarriko du, bai eta Euskadiko ekonomiaren oinarrien eta produktuen eta zerbitzuen ekoizpen- eta kontsumo-prozesuen eraldaketa sakona eta gizarte-usadioen egokitzapena ere.

Aukera gisa, V. atalean jasotzen den bezala, Euskadik abiapuntu ezin hobea du trantsizio energetikoaren ondorio izango diren ingurumen, gizarte eta ekonomia mailako inpaktuez baliatzeko, horien pisu espezifikoak eta garrantzia kontuan hartuta. Enpresa-sare bat du, zientzia- eta teknologia-

azpiegitura batean oinarritua, eta Euskadiko ekonomian pisu handia duen energia-sektorea du; gainera, posizionamendu nabarmena du Estatuko gainerako eskualdeen aldean.

Halaber, prozesu hori guztia bidezko trantsizioaren irizpidearen arabera gauzatu beharko da, trantsizioak eragindako kostuen eta kargen banaketa ekitatiboa kontuan hartuta, inor atzean utzi gabe. Horretarako, sektore ekonomiko, lurralde eta populazio ahulenei arreta berezia eskainiko zaie, eta generoa, adina edo pertsonen disfuntzioaren aldagaia integratuko da, trantsizioa bidegabekeriaren eta desberdintasunen kausa berri bihurtu ez dadin.

Xedapenak

I. kapituluak (1-3. artikulua) xedapen orokorrak jasotzen ditu. Legearen xedea eta helburuak, legearen printzipioak eta definizio multzo bat zehazten ditu; horiek eranskin batean jaso dira.

II. kapitulua (4-9. artikulua) gobernantzar buruzkoa da. Euskal administrazio publikoek trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari dagokienez dituzten eskumenak eta eginkizunak arautzen ditu, eta arlo horretan koordinazio-, lankidetzaz- eta partaidetzaz-organoei izango dituzten eginkizunak diseinatzen ditu. Arreta berezia jarri zaio Trantsizio Energetikoaren eta Klima-aldaketaren Euskal Bulegoari, hura lagundu eta sustatzeko organoa baita.

III. kapitulua (10-14. artikulua) plangintza-tresnak jasotzen ditu, legearen helburuak eraginkor izan daitezkeen. Tresna horiek dira 2050eko ibilbide-orria, Trantsizio Energetikoaren eta Klima-aldaketaren Estrategia, eta tokiko eta lurralde historikoetako planak klimaren eta energiaren arloan.

IV. kapitulua bi ataletan banatuta dago, eta **trantsizio energetikoa** arautzen du (**15-18. artikulua**), bai eta **neutraltasuna sustatzen duten bestelako sektore-politikak** (**19-27. artikulua**).

V. kapituluak (28-37. artikulua) lurraldearen eta euskal gizartearen erresilientzia ziurtatzeko neurriak aipatzen ditu.

VI. kapituluak (38-48. artikulua) legearen xedapenak betetzea ahalbidetzen duten **zeharkako tresnak** diseinatzen ditu.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea eta helburuak
2. artikulua.- Printzipioak
3. artikulua.- Definizioak

II. KAPITULUA. GOBERNANTZA

4. artikulua.- Eskumenak eta funtzioak
5. artikulua.- Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren batzordeak
6. artikulua.- Erakundeen arteko koordinazioa trantsizio energetikoan eta klima-aldaketan
7. artikulua.- Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren euskal bulegoa
8. artikulua.- Partaidetza publikoa
9. artikulua.- Lankidetzaz trantsizio energetikoan eta klima-aldaketan

III. KAPITULUA. TRANTSIZIO ENERGETIKOAREN ETA KLIMA-ALDAKETAREN PLANGINTZA

10. artikulua.- Plangintzarako bitartekoak
11. artikulua.- Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren 2050erako ibilbide-orria
12. artikulua.- Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketarako estrategiak
13. artikulua.- Lurralde historikoen eta toki-erakundearen klima- eta energia-planak
14. artikulua.- Ebaluazio eta jarraipen sistema

IV. KAPITULUA. KLIMA NEUTRALTASUNA

1. SEKZIOA. TRANTSIZIO ENERGETIKOA

- 15. artikulua.- Trantsizio energetikoaren jarraibide orokorrak
- 16. artikulua.- Eraginkortasun energetikoa
- 17. artikulua.- Energia berriztagarriak
- 18. artikulua.- Mugikortasun jasangarria

2. SEKZIOA. NEUTRALITASUNA SUSTATZEN DUTEN BESTELAKO SEKTORE- ETA LURRALDE-POLITIKAK

- 19. artikulua.- Ekonomia zirkularra
- 20. artikulua.- Industria jarduerak
- 21. artikulua.- Merkataritza jarduerak, turismoa eta bestelako zerbitzuak
- 22. artikulua.- Nekazaritza, abeltzaintza, baso eta arrantza jarduerak
- 23. artikulua.- Ondare naturala kudeatzea
- 24. artikulua.- Karbono-hustulekuak
- 25. artikulua.- Lurralde-antolamendua, hirigintza-plangintza eta hiri-berroneratzea
- 26. artikulua.- Eraikinak eraikitzea eta birgaitzea
- 27. artikulua.- Titulartasun publikoko azpiegiturak eta ekipamenduak

V. KAPITULUA. LURRALDEAREN ERRESILIENTZIA: KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEA

- 28. artikulua.- Lurralde-eredu egokitua eta erresilientea
- 29. artikulua.- Azpiegitura kritiko eta sentikorak
- 30. artikulua.- Lurralde-antolamendua, hiri-plangintza eta hiri-berroneratzea
- 31. artikulua.- Ingurune urtar kontinental, itsasoa eta itsasertza babestea
- 32. artikulua.- Baliabide hidrikoak eta lehorteak eta uholdeak kudeatzea
- 33. artikulua.- Ondare naturala babestea
- 34. artikulua.- Nekazaritza eta baso, abeltzaintza eta arrantza sektorea
- 35. artikulua.- Jarduera ekonomikoak, turismoa eta bestelako zerbitzuak
- 36. artikulua.- Osasun-sistema
- 37. artikulua.- Larrialdiei erantzutea, babes zibila eta segurtasuna

VI. KAPITULUA. TRANTSIZIO ENERGETIKOAREKIN ETA KLIMA-ALDAKETAREKIN LOTUTAKO ZEHARKAKO TRESNAK

- 38. artikulua.- Planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa
- 39. artikulua.- Ezagutza eta hezkuntza bultzatzea
- 40. artikulua.- Ikerketa, garapena eta berrikuntza
- 41. artikulua.- Sentsibilizazioa eta informazio publikoa
- 42. artikulua.- Trantsizio energetikoari eta klima aldaketari buruzko ekimenen euskal erregistroa
- 43. artikulua.- Ekonomia deskarbonizatzeko digitalizazioa
- 44. artikulua.- Erosketa publikoko produktuen, zerbitzuen eta horniduren karbono-aztarna
- 45. artikulua.- Energia kontrolatzeko, emisioak murrizteko eta egokitzeko teknikak eta teknologiak bultzatzea
- 46. artikulua.- Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren alorreko zerga sistema
- 47. artikulua.- Euskal administrazio publikoen baliabideak mobilizatzea
- 48. artikulua.- Administrazio-izapideak

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGO XEDAPEN OSAGARRIA. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren 2050erako ibilbide-orria

BIGARREN XEDAPEN OSAGARRIA. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren euskal estrategia

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. 2050erako ibilbide-orria eta Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren lehenengo estrategia

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren alorrean eskuduna den sailari egindako erreferentziak

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Lurralde historikoetako eta toki-erakundeetako klima- eta energia-planak

SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Aurrekontu-arloko gidalerroak

ZAZPIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Ihobe-Ingurumenaren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa sortzea.

ZORTZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Estalki gaineko eguzki-planta fotovoltaikoetarako administrazio-izapideak arintzea

XEDAPEN IRAGANKORRA; horren arabera, Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren lehenengo estrategia onartu arte indarrean jarraituko dute energiaren eta klimaren arloko sektore-estrategiek, eta 2021/2024 Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Planak.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENENGO AZKEN XEDAPENA. Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legea aldatzea

BIGARREN AZKEN XEDAPENA. Erregelamendu bidezko garapena

HIRUGARREN AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea

ERANSKINA. DEFINIZIOAK

III.- GOGOETA OROKORRAK

Kontseilu honek lege-aurreproiektu bat aurkeztu du, eta horren xedea da esparru juridiko egonkorra ezartzea, Euskadin klima-neutraltasuna lortzeko, 2050ean gehienez ere, eta lurraldeak klima-aldaketarekiko duen erresilientzia handitzeko, ekitatea eta elkartasuna bermatuko dituen trantsizio justu eta jasangarri, sozial, ekonomiko eta ingurumenekoaren bidez.

Une zaila da gure gizartearentzat, premia lan egin behar baita erregai fosilekiko mendekotasuna alde batera uzteko eta energia berriztagarrietan oinarritutako eredu berri baterantz aurrera egiteko; baina, zalantzarik gabe, lege-aurreproiektu hau aurrerapauso handia da, klima-aldaketaren eta trantsizio energetikoaren aurkako borroka ekintzen erdigunean jartzen baitu.

Araua juridikoki eta materialki bidezkoa da; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 11.1.a) eta 11.2.c) artikuluen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da, hurrenez hurren, ingurumenaren eta ekologiaren arloko eta energia-araubidearen arloko legeak garatzea eta betearaztea bere lurraldean.

II.1 ARAUAREN TESTUINGURUA: KLIMA-ALDAKETAREN ARLOAN HARTUTAKO KONPROMISOAK

Nazioartean, Parisko Hitzarmena (2015) nabarmendu behar da, Kyotoko Protokoloaren (1997) esparruan hartutako planteamendua ordezkatzeko baitu. Juridikoki loteslea den tresna bat da alderdi sinatzaileentzat, eta epe luzerako helburua ezartzen du: munduko tenperaturaren igoera 2 °C-tik behera mantentzea, industriaurreko maileri dagokienez, eta tenperatura igoera hori 1,5 °C-ra mugatzeko ahaleginak egiten jarraitzea. Hitzarmen hori alderdi sinatzaileek berretsi behar dute, ekarpen deiturikoen bidez, hau da, aldian-aldian berritu beharko diren murrizketa-konpromisoen bidez.

2021eko azaroan, Klimari buruzko Nazio Batuen Konferentzian, COP26 Glasgow izenekoan, 190 herrialde baino gehiagoren arteko adostasuna lortu zen. Horrek Parisko Hitzarmenaren Araudia osatzea eta bere helburuak bizirik mantentzea ahalbidetuko du, berotze globala 1,5 °C-ra mugatzeko aukera emanez.

Batasunaren testuinguruan, Europako Batzordeak, Europako Itun Berdea izeneko 2019ko abenduaren 11ko Jakinarazpenean, hazkunde-estrategia berri bat ezarri zuen. Horren helburua EB gizarte ekitatibo eta oparo bihurtzea da, ekonomia moderno batekin, baliabideen erabilera eraginkorra eta lehiakorra, zeinetan ez baita BEG isurketa garbirik izango 2050ean, eta hazkunde ekonomikoa baliabideen erabileratik bananduta egongo baita.

2020ko martxoan, EBk, Klimaren Europako Legea izenekoan, esparru bat ezarri zuen berotegi-efektuko gasen isuriak pixkanaka murrizteko eta hustulekuek xurgapenak areagotzeko. Halaber, 2020ko abenduan, EBk Parisko Hitzarmenari egindako ekarpena eguneratu zuen, eta helburu lotesle bat ezarri zuen: 2030ean CO₂ isuriak % 55 murriztea 1990. urtearekin alderatuta, eta BEG isurien neutraltasuna 2050ean. Era berean, estatu kideek eta Batasunak egokitzeko gaitasuna handitu behar dutela ezarri

zen, erresilientzia indartu behar dutela eta klima-aldaketarekiko kalteberatasuna murriztu behar dutela.

Estatuan, Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Lege berria dago, gehienez ere 2050ean isurien neutraltasuna lortu nahi duena. Horretarako, 2030ean, Espainiako ekonomia osoaren isuriak gutxienez % 23 murriztu beharko dira 1990. urtearekin alderatuta. Era berean, "2050ean Espainiako Ekonomia Modernoa, Lehiakorra eta Klimatikoki Neutroa izateko Epe Luzerako Estrategiak" (2050 ELE) berotegi-efektuko gasen isuriak % 90 murriztea ahalbidetuko du estatuan, gehienez ere 2050ean, 1990. urtearekin alderatuta. Gainerako % 10a karbono-hustulekuek xurgatuko dute, eta horrek neutraltasun klimatikoa lortzea eragingo luke. Bestalde, "2021-2030 Klima Aldaketara Egokitzeko Plan Nazionalaren" (PNACC) helburu orokorra da klima-aldaketaren ondorioen aurrean ekintza koordinatua eta koherentea sustatzea, klima-aldaketaren ondoriozko egungo eta etorkizuneko kalteak saihesteko edo murrizteko eta ekonomia eta gizarte erresilienteagoa eraikitzeko.

Autonomia-erkidegoan, honako mugarri hauek hartu behar dira kontuan.

2002an, klima-aldaketari buruzko politikak hasi ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, eta klima-aldaketa jarduketa-lehentasunetako bat izan zen "Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020" estrategian. Ondoren, "Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko Euskal Plana 2008-2012", "Euskadiko 2020rako Ingurumen Esparru Programa" eta "2050erako klima-aldaketaren Euskadiko estrategia" (KLIMA 2050) garatu ziren; azken hori 2015eko ekainean onartua.

Bestalde, Euskadiko energia-politikak energia-eremua eta klima-aldaketa lotzen ditu "Euskadiko Energia Estrategia 2030" strategiaren bidez, bai eta garapen-tresna arau-emaileak ere, hala nola EAEko Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoari buruzko irailaren 22ko 178/2015 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea eta 254/2020 Dekretua.

EAEko administrazioak, energia-enpresa nagusiekin lankidetzan, eta industria-klusterren laguntzarekin, "Basque Net Zero Industrial Super Cluster" abiarazi du, eskualde hori industriaren deskarbonizazioan aitzindari izan dadin, industriaren energia-kontsumoaren deskarbonizazioa eta energia-efizientzia bultzatuz, eta, aldi berean, garapen teknologikoan eta berrikuntzan oinarritutako merkatu-aukerak sortuz. World Economic Forum (WEF) garatzen ari den programarekin bat egin du Euskadik, industria-trantsizioa zero emisio garbietarantz bultzatzeko.

Era berean, Euskadik bat egin du Europako Itun Berdearekin, Basque Green Deal ekimenaren bidez, etorkizun jasangarriagoa lortzeko. 2021ean, gainera, "2021-2024 aldirako Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana" onartu zen, berotegi-efektuko gasen emisioa % 30 murrizteko, energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumoaren % 20 izatea lortzeko, eta Euskadik klima-aldaketaren aurrean duen erresilientzia ziurtatzeko. Horrez gain, "Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2021-2024 Plana" ere egin da, eta horren helburua da produktibitate materiala % 30 handitzea; material zirkularraren erabilera-tasa % 10 handitzea, eta BPGren unitate bakoitzeko hondakinen sorrera-tasa % 10 murriztea.

II.2. ARAUAREN BALORAZIO OROKORRA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak **balorazio positiboa egin du trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren lege-aurreproiektuari dagokionez**. Haren ikuspegiarekin eta egiturarekin bat gatoz, eta egokitzen jotzen dugu horrelako aurreproiektu bat egitea, komunitate zientifikoak aspaldidanik gizarte osoari egiten dion deiaren arabera eta nazioarteko Erkidegoak eta

Batasunak klima-aldaketaren arloan ezartzen ari diren jarraibideen arabera. Hori guztia, legea hobetzen lagunduko luketen ondorengo gogoetetan adierazitakoari kalterik egin gabe.

Legearen helburua da Euskadiko errealtatera modu eraginkorrean egokitzea bai arau-esparrua, bai klima-aldaketaren arloan hartutako nazioarteko konpromisoak, eta, horretarako, zero isuri garbi eta lurralde erresiliente baterako trantsizioa egiteko erabil daitezkeen estrategiak eta tresnak eratzea, Euskadiko sozioekonomiaren errealtatearekin eta datozen urteetan izango dituen erronka eta aukerekin bat datorren plangintza eta ibilbide-orri baten esparruan.

Jakin badakigu ez dela erraza epe oso luzerako (2050. urtea) helburuei erantzunak ematea nahi duten planteamenduei ekitea, kasu honetan bezala. Alde horretatik, merezi du, hain zuzen ere, aurreproiektu honek lan horri ekitea, eta ez edonola, baizik eta **egokitzat jotzen ditugun parametro** batzuetan oinarrituta:

1. Globaltasuna eta integrazioa

Arauk, batez ere, euskal gizarte osoaren konplizitatea eskuratu nahi du interes komuna lortzeko: guztion artean eredu sozioekonomiko berri bat eraikitzea, planetarekiko errespetuan oinarritua. Hori dela eta, klausulen bitartez solaskide publiko eta pribatuei eta Euskadiko herritarrei dei egiten zaie lege-aurreproiektu honetan ezarritako printzipioekin bat egin eta etorkizuneko herria elkarrekin eraiki dezagun. Bat etortzeaz gain, erantzunkide ere izango gara, 2. artikuluan aipatzen den bezala, eragile publiko eta pribatuen arteko erantzukizun partekatua eskatzen denean. Baina, gainera, legeak arreta berezia ipintzen die sektore guztiei, batzuk besteen aurrean alde batera utzi gabe. Globaltasun horren bila dabil, interpelatuz eta, aldi berean, sektore bakoitzari parte hartzea eskainiz. Adibide argia dugu IV. kapituluko 2. atalean (20., 21., 22. artikulua, etab.). Eta beste adibide argi bat 4.2 artikulua izango litzateke, zeinean euskal administrazio publiko guztiei eskatzen baitzaie trantsizio energetikoa eta klimatikoa kudeaketa-eremu guztietan integra dezatela beren eskumenen egikaritzan, bai eta politika sektorialen, planen eta programen bidez bultzatzea.

2. Zehaztasuna, malgutasuna eta integrazioa

Arauk kontzeptu-esparru baten definizio hutsetik haratago joateko ahalegina egiten du, hura gauzatzeko edukiak eta epeak zehaztuz, nahiz eta arauak denbora-tarte oso zabala (datozen 30 urteak) arautzen duen, eta horrek edozein zehaztapen egitea zailtzen duen. Hala ere, ahalegin hori egiteko, konpromiso zehatzak eta denbora-tarte horrek eskatzen duen malgutasuna konbinatzen dira. Adibide batzuen artean, xedapen gehigarriak daude, edo 12.3 artikulua, trantsizio energetikorako eta klima-aldaketarako estrategiei buruzkoa.

3. Koordinazioa, lankidetzeta eta erantzukizun partekatua

Arau honen beste ezaugarrietako bat da administrazioen arteko lankidetzeta-gobernantza eta eragileen arteko lankidetzeta publiko-pribatua indartzeko eginahala, planteatzen den helburua lortzeari dagokion bezala. Horregatik, dokumentuan zehar presentzia eta garrantzi handiagoa hartzen dute helburu hori lortu nahi duten klausula guztiek, hala nola gobernantzari dagokion atalak (II. kapitulua) eta, bereziki, 9., 5. edo 7. artikuluek.

Herritarren partaidetza sustatzea azpimarragarria da. Herritarren batzarrak sortzeko 8. artikulua edo herritarren sentsibilizatzeko 41. artikulua argi erakusten dute arauak zer ikuspegi duen. Euskadi osatzen dugun pertsona guztion lankidetzeta eta erantzunkidetasuna eskuratu nahi da, interes komuna

lortzeko: planetarekiko errespetuan oinarritutako eredu sozioekonomiko berri bat eraikitzea.

4. Sustapena, inposizioaren orde

Nabarmentzekoa da sustapen-tresnen nagusitasuna, zigor- edo inposizio-tresnen orde. Arauak, batez ere, sektoreek produktu, ekoizpen-sistema eta negozio-eredu egokiagoak izatea nahi du sustapenaren eta laguntzaren bidez, Europak eta Estatuko legeriak berak ezarritako eskakizun eta betebeharrak dagokienez. Ikusten dugunez, aurreproiektu honek, betebeharrak barne hartzen dituen arren, ez du alde batera uzten diziplina desberdinetan (egokitzapena, arintzea, konpentsazioa eta energia – hornidura eta azpiegitura kritikoak–) konponbideak bilatzeko ardura dutenei laguntza aktiboa emateko lehentasunezko beharra.

5. Bidezko trantsizioa

Irtenbideen bultzada, trakzioa eta bilaketa hori guztia bidezko trantsizioaren kontzeptua txertatuz egingo da. Bat gatoz ideia horrekin, jakin badakigulako sektore, jardura edo kolektibo batzuei oso modu berezia eragingo diela eraldaketa horrek, eta beren egungo egoera biziki eta denbora laburrean birplanteatu beharko dute. Ekiteko modu horrek aldaketa estrategiko sakonak ekar ditzake, eta horrek nahi ez diren ondorioak izan ditzake enpleguan eta enpresa-ereduetan. Horregatik, positiboki baloratzen dugu bidezko trantsizioaren kontzeptua prozesu osoaren garapenerako oinarri gisa hartzea.

6. Administrazioen eredugarritasuna

Euskal administrazio guztien eredugarritasuna da arau honen beste ezaugarrietako bat. Artikuluetan zehar hainbat betebeharrak eta erantzukizun finkatzen dira, eta administrazioek modu ordenatuan eta koordinatuan bete beharko dituzte, guztien ongia lortzeko.

7. Betejarazlea

Lehen adierazi den bezala, arauak ez du esparru bat arautzen. Urrats bat harago eman nahi du, eta politika publikoak gauzatzeaz arduratuko diren organoak eratzeko eta berrantolatzeak aukera ematen duten xedapenak jasotzen ditu, hala nola Klima-aldaketaren Euskal Bulegoa sortzea edo Ihobe birmoldatzea.

8. Begirada positiboa

Erronka izugarria da, eta ondorio negatiboak oso garrantzitsuak; hala ere, arauak katastrofismotik ihes egiten du, eta Euskadiko energia- eta klima-eraldaketa ikuspegi positibotik arautzen du; klima-erronkaren aukerak eta ontasunak hauteman eta aprobetxatzen ditu, eta sektore ekonomikoetara, bereziki, ahulenei laguntzen die eredu ekonomiko berri baterantz joan daitezen, ardatza aukera horietan jarriz. Erronka horren eraginpean dauden erakundeak eta kolektiboak, neurri handiagoan edo txikiagoan, beren indarguneetan oinarrituta aurrera egitea bilatzen du, gizarteari balio erantsia emanaz. Horregatik, legeak bultzada ematen dio hezkuntzari, ikerketari edo tresna ugari lantzeari. Begirada horren adibide dira 20., 21., 22. edo 35. artikulua.

Azkenik, bereziki azpimarratu behar da lege-aurreproiektu honen asmoa Euskadiko lehiakortasuna eta garapen ekonomikoa klima-aldaketarekin eta gure biodibertsitatearen errespetuarekin integratu eta kohesionatzea dela. Ingurumen- eta garapen ekonomiko eta sozialeko politikek aurre egoteari utziko diote; bat egingo dute testuinguru sozial eta ekonomiko berri bat eraikitze helburuarekin, aukera eta bidezko tratuari dagokienez. Gauzak egiteko eta planetan egoteko paradigma berri bat da, eta, gainera, bidezko trantsizio baten bidez egitea bilatzen da.

Beste gogoeta batzuk:

Positiboki baloratzen dira honako kontu hauek:

- Kontuan hartu dira Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak bere garaian Klima-aldaketaren lege-aurreproiektuaren zirriborroari buruz egin zituen gogoetak. Horren adibide da 8.2 artikuluan itun sozialari buruz egiten den erregulazioa.
- Energia-hornidura segurtatzearekin (kanpo-mendekotasun txikiagoa) eta azpiegitura kritikoak zaintzearekin zerikusia duena sakon arautzen da. Gaur egun, energiaren hornidura eta azpiegituren garapena trantsizio alderdi garrantzitsuenetako bat bihurtu da, bereziki trantsizio energetikoan. Hornidurarik eta sarerik gabe, nekez aipatu daiteke trantsizio energetikoa.
- Interesgarria da karbono-hustulekuak sustatzearen inguruan egiten den proposamena; izan ere, puntu garrantzitsua da arintzearekin eta egokitzearekin batera, baina askotan bigarren mailan geratzen da (24. artikulua). Gai hori ere arreta handiz landu behar da.

II.3. ARAUA HOBETZEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO ZENBAIT KONTU

Bidezko trantsizioari buruz

Aipatu dugun bezala, positiboki baloratzen dugu bidezko trantsizioaren kontzeptua prozesu osoaren garapenerako oinarri gisa hartzea. Ikusi dugunez, legearen beraren xedeari eta printzipioei buruzko zatian aipamen garrantzitsuak egiten dira bidezko trantsizioarekin lotutako elementuei buruz, hala nola enpleguaren kalitateari eta gizartearen ongizateari buruz 1.2.c) artikuluan, justizia sozialari buruz 1.2.h) artikuluan eta herritarren bizi-kalitateari eta gizarte-ongizateari buruz 2.1.l) artikuluan.

Hala ere, batzorde honen iritziz, **bidezko trantsizioaren kontzeptuak garrantzia gehiago izan beharko luke** zioen azalpenean. Horrela, zioen azalpenaren II. atalaren lehen paragrafoan bidezko trantsizioa eta integratzailea aipatzen da. Puntu horretan beharrezkoa da gehitzea enpleguaren mailari eta kalitateari eustea dela bidezko trantsizio horren funtsezko osagaietako bat. Zioen azalpeneko VII. ataleko azken paragrafoan beste aipamen bat egiten zaio bidegabekeriari eta desberdintasunik sortzen ez duen trantsizio bati, baina berriz ere ez da enpleguari buruzko aipamenik egin. Gauza bera gertatzen da IX. ataleko lehen paragrafoan.

Aipatutako hiru ataletako batean, komeniko litzateke ñabardura bat jasotzea: enpleguaren mailari eta kalitateari eustea bidezko trantsizioaren berezko zatia da. Era berean, alderdi hori kontuan hartzea komeni da eranskinaren w) letran bidezko trantsizioari buruz ematen den definizioan (lege osoan kontuan hartu behar diren definizioak biltzen ditu).

Ildo beretik, jakinaren gainean egon behar dugu trantsizio energetikoak kostu bat duela, eta ez dela nahikoa soilik energia garbiagoetarako trantsizioa egitea; aitzitik, argiaren eta energiaren prezioari eutsi behar zaio, eta merkeagoa eta bidezkoagoa izan behar du denbora gehiagoz.

Ekonomia zirkularrari buruz: “Euskadiko Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2021-2024 Plan Estrategikoa”

Zioen azalpeneko IV. atalean aipatzen den Eusko Jaurlaritzaren energia- eta industria-politiken

ibilbidean, 2021ean Euskadiko Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2021-2024 lehen Plan Estrategikoa onartzea sartu beharko litzateke. Batez ere, kontuan hartzen badugu ekonomia zirkularreko estrategiak zioen azalpeneko V. ataleko azken paragrafoaren amaieran aipatzen direla, ekonomia deskarbonizatzeke helburuan beharrezkoa den praktika gisa.

Era berean, eta alderdi horren garrantziaren erakusgarri, 1.2.f) artikuluan ekonomia zirkularra berrikuntzaren sustapenarekin lotzen da, eta hori lege honen helburu estrategiko gisa planteatzen da.

Ingurumen-helburuak lortzeko, euskal administrazio publikoak estatukoarekin eta Europar Batasunekoarekin duen lankidetzari buruz

Aipatu dugun bezala, arau honen ezaugarrietako bat administrazioen arteko lankidetzaz-gobernantza eta lankidetzaz publiko-pribatua indartzeko ahalegina da.

Hala ere, ingurumen-helburuak lortzeko eta administrazioen arteko (Euskadikoa, estatukoa eta EBkoa) politikak koordinatzeko euskal administrazio publikoak estatukoarekin eta Europar Batasunekoarekin duen lankidetzari buruzko berariazko aipamena urria dela uste dugu, eta aipamen gehiago egin daitezkeela.

Hain zuzen ere, 2.1 artikuluko n) letran euskal administrazio publikoen arteko lankidetzaz hitz egiten da; 9. artikuluan, trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloan beste autonomia-erkidego batzuekin lankidetzaz aritzeaz hitz egiten da; herrialdeen eta eskualdeen arteko lankidetzaz eta nazioarteko sareekiko lankidetzaz ere aipatzen dira, baina ez da estatuarekiko eta Europar Batasunarekiko elkar-lana edo lankidetzaz aipatzen, eta hori kontuan hartzea komeniko litzateke.

Herritarren batzarren eginkizunei buruz: Partaidetzaz eraginkorra (8. artikulua)

Adierazi dugun bezala, nabarmentzekoa da partaidetzaz publikoaren sustapena.

8. artikulua 2. puntuan aipatzen denez, *“trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorreko politika diseinatzeko eta horren jarraipena egiteko partaidetzaz publikoa [...] **Ingurumeneko Batzarre Aholkulariaren** bitartez egituratuko da eta bera izango da euskal administrazio publikoen eta gizarte, ekonomia eta ezagutza sektore adierazgarrien arteko harreman eta partaidetzaz organoa”*; eta, bestetik (5. puntuan), partaidetzaz **herritarren batzarren** bidez bultzatzea planteatzen da, horien eginkizunak zehaztu gabe, nahiz eta dekretu bidez horien osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautuko direla adierazi.

Ildo horretan, komenigarritzat jotzen dugu zehaztea **batzar horiek zer eginkizun izango duten**, informaziorako edo **partaidetzaz eraginkorrerako** kanalak baino ez ote diren izango, planetan ezarritako egoera/helburuak ebaluatuz eta/edo proposamenak eginez, etab.

Klima-neutraltasuna lortzea erakunde, eragile, sektore ekonomiko, sozial eta politiko guztiei dagokienez, eta azken batean, gizarte osoari, funtsezkoa izango da horien guztien inplikazioa eta partaidetzaz maximizatzea, 2030erako eta 2050erako BEG isurketak murrizteko aurreikusitako helburuak lortzeko, bai eta jasangarritasun energetikoaren kultura garatzeko ere.

Enpresa txikienentzat karbono-aztarna xedatzearen betebeharrari buruz

“Neutraltasuna sustatzen duten bestelako sektore- eta lurralde-politikak” deituriko 2. sekzioan,

sektore ekonomikoetarako karbono-aztarna xedatzeko betebeharra arautzen da (ikus 20.5, 21.5, 22.2 artikulua). Haren definizioa eta zehaztapena erregelamendu bidez garatzeke daude. Erregelamendu bidezko garapenean betebeharrak berri horren mende egongo diren sektoreak eta enpresa motak zehaztu beharko dira.

Ilido horretatik, iradokitzen dugu erregelamendu bidezko garapenean enpresaren tamaina kontuan hartzea irizpide gisa, are gehiago karbono-aztarnaren nahitaezotasuna obra, produktu eta zerbitzuen lizitazio publikoetan eskatuko denean, lege-aurreproiektu honen 44. artikulua arabera. Agian, enpresa mota desberdinek betebeharrak hori beren gain hartzeko modu iragankorrak bila litezke, lehiaketa eta lizitazio desberdinetan parte hartzeko duten gaitasunari kalterik egin gabe. Kontuan izan behar da txikienean ez dituztela eskatutako estandarrak aplikatzeko ezagutza eta baliabide berdinak.

Erosketa publikoko produktuen, zerbitzuen eta horniduren karbono-aztarnari buruz (44. artikulua)

44. artikulua ezartzen duenez, lizitazio publikoan parte hartzen duen enpresak nahitaez eduki behar du lizitazioaren xede diren produktu, zerbitzu eta horniduren karbono-aztarnaren kalkulua. Artikulu horri dagokionez, honako gai hauek planteatzen ditugu:

- Produktuaren karbono-aztarnaren kalkulua kasuan, uste dugu xedapen honen 2. atalean ezarritako epea ez dela egokia (6 hilabete). Gure iritziz, egokiagoa izango litzateke epea erregistroari buruz sortzen den erregelamenduan zehaztea, une horretan kalkulu-metodologiak eskuragarri egongo baitira eta hobeto jakingo baitugu nola eragingo dien sektoreei.
- Zerbitzuen aztarnaren kalkulua dagokionez, enpresek antolaketa-aztarna kalkulatu dute (ISO 14064-1), eta beren jardueraren inpaktua ezagutzen dute oro har, ez zerbitzu jakin batena, are gutxiago enpresak garatu ez duen zerbitzu batena, hirugarrenek garatutakoa baizik. Etorkizunean egingo diren arau-garapenetan eta baldintza-agirietan horrelako gaiak kontuan hartzea iradokitzen dugu.
- Obren kasuan, aurreko kasuko gauza bera gertatzen da, baina berezitasun bat du: obra batean, eraikitzaileak ez du diseinatzen. Horrek esan nahi du eraikuntza-enpresek ez dituztela obra egin aurretik karbono-aztarna kalkulatzeko behar diren datuak. Lizitazio-fase honetan, eman litekeen bakarra gutxi gorabeherako datu ez fidagarriak dira.

Ezartzeko zailtasun horien aurrean, xedapena berrikustea iradokitzen dugu. Erakundearen karbono-aztarnaren kalkulua eskatzeko aukera dago, benetako kontsumoen datuetan oinarrituta, eta, horren ondorioz, murrizteko plana, Estatuko klima-aldaketaren 7/2021 Legearen hamabigarren xedapen gehigarriaren ildotik, batez ere, eraikuntza eta halako sektoreetarako.

Administrazio-izapideei buruz (48. artikulua)

48. artikulua administrazio-prozeduren sinplifikazioa, arintzea eta gardentasuna jasotzen ditu. Prozesu eraldatzaile orok administrazio-lan bizia eragiten du. Arau honetan planteatzen den trantsizio energetiko-klimatikorako, aldaketa sakonak eta premiazkoak egin beharko dira, bai eta izapidetzean aldaketa handiak egitea ere. Izapidetzea enpresen kezka handienetako bat da. Horregatik iradokitzen dugu euskal administrazioek arreta berezia jartzea gai honetan, eta etorkizuneko lege honetatik ondorioztatuko diren administrazio-prozedurak ahalik eta gehien arindu eta sinplifikatuko dituzten mekanismoak garatzea.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

ZIOEN AZALPENA

- **II., VII. eta IX. atalak**

Gogoeta orokorretan adierazi dugun bezala, aipatutako hiru ataletako batean, bidezko trantsizioari buruzko aipamenak honako ñabardura hau jaso behar du: enpleguaren mailari eta kalitateari eustea bidezko trantsizioaren berezko elementua da.

- **IV. atala**

Gogoeta orokorretan adierazi dugun bezala, 2021ean Euskadiko Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2021-2024 lehen Plan Estrategikoa onartzea sartu beharko litzateke atal honetan.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea eta helburuak.

- 1. puntuan jaso denez, *“Lege honen xedea gehienez ere 2050ean Euskadin klima neutraltasuna lortzeko esparru juridiko egonkorra ezartzea eta lurraldearen klima aldaketarekiko erresilientzia gehitzea da. Horretarako, trantsizio bidezkoa, jasangarria, soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa bultzatuko da, ekitatea eta elkartasuna bermatuz”*. Proposatzen da “elkartasuna” kentzea eta “baliabide naturalen erabilera arrazional eta solidarioa” gehitzea.

Hala, honelaxe geldituko litzateke testua:

1. Lege honen xedea gehienez ere 2050ean Euskadin klima neutraltasuna lortzeko esparru juridiko egonkorra ezartzea eta lurraldearen klima aldaketarekiko erresilientzia gehitzea da. Horretarako, trantsizio bidezkoa, jasangarria, soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa bultzatuko da, ekitatea eta **baliabide naturalen erabilera arrazional eta solidarioa** bermatuz.

Justifikazioa: erakundeek deskarbonizazioa, trantsizio energetikoa eta garapen jasangarriko eredu bat ezartzeak baliabideen erabilera arrazional eta solidarioa bermatu behar dutela uste dugu, klima-aldaketaren ondorioak saihesteko.

- 2. puntuan aldaketa hauek proposatzen ditugu:
 - c) letrak hauxe dio: *“Deskarbonizazio prozesua sustatzea euskal sektore sozioekonomiko guztietan trantsizio energetikoa erabiliz eta jarduera ekonomikoa, enpresa lehiakortasuna, enpleguaren kalitatea eta gizartearen ongizatea gehituz garapen jasangarriko eredu baten esparruan ingurumen, gizarte, ekonomia jasangarria eta inklusio ikuspuntuetatik”*. Idazketa alternatibo hau proposatzen dugu:

c) Deskarbonizazio-prozesua sustatzea, trantsizio energetikoa modu integratuan erabiliz eta euskal sektore sozioekonomikoen arteko sinergia posible guztiak aurkituz, bai eta jarduera ekonomikoetan, enpresa-lehiakortasunean, enpleguaren kalitatean eta gizartearen ongizatean produktibitatea hobetuz, garapen jasangarriko eredu baten esparruan ingurumen, gizarte, ekonomia jasangarria eta inklusio ikuspuntuetatik.

- h) letrak hauxe dio: *“Gizartearen prestakuntza eta harmonizazioa bultzatzea finantzaketan,*

fiskalitatean edo ikerketan, modu horretan, gizarte justizia eta bidezko trantsizioa bermatzeko”.

“Gizartearen prestakuntza” esamoldeari buruzko interpretazio-zalantzak sortzen dira, eta uste dugu komeni dela argitzea zertaz ari den.

- i) letra gehitzea proposatzen da, honelaxe:

i) Herritarrek eta eragile ekonomiko eta sozialek klima-politikak egiten eta ebaluatzen parte har dezaten sustatzea.

Izan ere, gure ustez, klima-aldaketaren aurkako borroka, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteak, trantsizio energetikoak eta energiaren erabilera eraginkorrak herritarren partaidetza eta gizarteko eragile guztien lankidetzat estua behar dute.

2. artikulua.- Printzipioak

Gure ustez, legaren oinarri eta iturri izan behar duten manuak dira, eta, horregatik, honako aldaketa hauek proposatzen ditugu:

- k) letraren ondoren, beste paragrafo bat sartzea proposatzen dugu, honelaxe:

l) Ingurumena, osasuna eta pertsonen segurtasuna babestea.

- l) atalean hauxe ageri da: “Herritarren bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea mantentzea eta handitzea, arreta berezia jarriz segmentu zaugarrienetan, bai eta enpresen lehiakortasun ekonomikoan ere, trantsizio energetiko eta klimatikoaren ondorioz”. Gure proposamena “enplegua” gehitzea da.

Testua honela geratuko litzateke:

m) Herritarren bizi-kalitatea, **enplegua** eta gizarte-ongizatea mantentzea eta handitzea, arreta berezia jarriz segmentu zaugarrienetan, bai eta enpresen lehiakortasun ekonomikoan ere, trantsizio energetiko eta klimatikoaren ondorio.

- Azken puntuan, hau da, n) letran, hau jaso da: “Euskal administrazio publikoen arteko lankidetzat askotariko mailetan eta eragile sozioekonomikoen, teknologikoen eta zientifikoen artean”. Beharrezkoa irizten diogu Estatuarekiko eta Europarekiko lankidetzat kontuan hartzea.

3. artikulua.- Definizioak (eranskinean).

- Gogoeta orokorretan aipatu dugun bezala, w) atalean honako ñabardura hau jaso behar da: enpleguaren mailari eta kalitateari eustea bidezko trantsizioaren berezko zatia da.
- Aldi berean, honako kontzeptu hauek sartzea eta definitzea iradokitzen dugu; izan ere, lege-aurreproiektuan termino horiek aipatzen dira, eta horiek sartuz gero, hobeto ulertzeko aukera izango dugu.

- **Deskarbonizazioa**
- **Erregai alternatiboak**
- **Azpiegitura berdea**
- **Azpiegitura berde-urdina**

○ **Mugikortasun jasangarria**

4. Artikulua. Eskumenak eta funtzioak

4. atalean agertzen denaz gain, garrantzitsutzat jotzen dugu genero-ikuspegia berariaz aipatzea atal bereizi batean; izan ere, klima-aldaketaren inpaktuak ez dira homogeneoak, eta ez du eragin bera gizarte-talde guztiengan. Emakumeak eta neskatoak, oro har, pobrezia-, diskriminazio- eta desberdintasun-egoeren ondorioz, zaugarriagoak dira eta klima-aldaketarekin lotutako arrisku eta karga handiagoak jasaten dituzte.

Gure ustez, klima-aldaketari aurre egiteko, ingurumenaren kontserbazioa hobetzeko, etorkizun jasangarria eta trantsizio energetiko bidezko eta inklusiboa lortzeko, besteak beste, genero-ikuspegia kontuan hartu behar da ingurumen-politiketan, genero-berdintasunean inbertitu behar da eta emakumeak ahaldundu behar dira.

II. KAPITULUA. GOBERNANTZA

7. artikulua.- Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren euskal bulegoa.

2.k) letrak hauxe dio: *“Hedapen jarduerak promozionatzea, horrela, komunikabideen eta sare sozialen bitartez energiaren eta klima aldaketaren alorreko informazio gardena eta arduratsua helarazteko herritarrei”*. Bertan, *“inklusiboa eta ez-sexista”* gehitzea proposatzen da.

Hala, honelaxe geldituko litzateke testua:

k) Hedapen jarduerak promozionatzea, horrela, komunikabideen eta sare sozialen bitartez energiaren eta klima aldaketaren alorreko informazio gardena, arduratsua, **inklusiboa eta ez-sexista** helarazteko herritarrei.

Justifikazioa: energiaren eta klima-aldaketaren arloko informazioa zabaltzeko, errespetuzko hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabili behar da.

8. artikulua.- Partaidetza publikoa

Gogoeta orokorretan aipatu dugun bezala, komenigarria dirudi 5. puntuan aipatutako herritarren batzarrek zer eginkizun izango duten zehaztea, informaziorako edo partaidetza eraginkorrerako kanalak baino ez ote diren izango, planetan ezarritako egoera/helburuak ebaluatuz eta/edo proposamenak eginez, etab.

9. artikulua.- Lankidetza trantsizio energetikoan eta klima-aldaketan

1. puntuan aipatzen denez, *“Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek bestelako autonomia-erkidegoekin, eskualdeekin eta mugaz bestaldeko erakundeekin lankidetzan jardungo dute trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren ekimenak sustatzeko”*.

Gogoeta orokorretan aipatu dugun bezala, deigarria egiten zaigu euskal administrazio publikoak Estatukoarekin eta Batasunekoarekin duen lankidetza ez aipatzea.

Hauxe gehitzea proposatzen da: *“Estatuko administrazioarekin, klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko 7/2021 Legearen arabera, eta”*.

Testua honela geratuko litzateke:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek **Estatuko administrazioarekin, klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko 7/2021 Legearen arabera, eta** bestelako autonomia-erkidegoekin, eskualdeekin eta mugaz bestaldeko erakundeekin lankidetzan jardungo dute trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren ekimenak sustatzeko.

III. KAPITULUA. TRANTSIZIO ENERGETIKOAREN ETA KLIMA-ALDAKETAREN PLANGINTZA

12. artikulua.- Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren estrategiak.

- 1. puntuan aipatzen denez, “Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren estrategiak Lege honen helburuak betetzea ahalbidetzen duten planen, estrategien eta politiken esparru integratua eta zeharkakoak dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren politikaren tresna orokorra ere badira”.

Iruditzen zaigu berriro ere “estrategia” terminoa erabiltzeak izaera praktikoa galtzea eragingo lukeela; tautologia bat izateaz gain, ez du zehaztasunik gehitzen.

Horren ordez, honela idaztea proposatzen dugu:

Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren estrategiak esparru integratua eta zeharkakoa dira, plan eta politika sektorialek Lege honen helburuen arabera beren funtzioa bete dezaten, eta Euskal Autonomia Erkidegoko trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren politikaren tresna orokorra ere badira.

- 4. puntuan, estrategien oinarritzko edukia aipatzen den atalean, alegia, d) letran, honako hau gehitzea proposatzen dugu.

d) Energia eta klima-aldaketaren alorretako zeharkako tresnak, honako gaiekin lotuta:

- Trantsizio bidezkorako mekanismoak.
- Ekonomia, finantza eta zerga mekanismoak.
- Araudi tresna berriak.
- Ikerketa, garapena eta berrikuntza lerroak.
- **Ingurumen-inpaktu posibleen aurrean ingurumena babesteko mekanismoak.**

- 5. puntuan, “inklusiboa” adjektiboa gehitzea proposatzen dugu:

5. Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren estrategietan neurriak, tresnak, araudi garapenak, finantzaketa mekanismoak eta laguntza eta zerga programak gehituko dira eskualdeei, sektore ekonomiko edo industrialei edo bereziki kaltetutako biztanleria segmentu jakinei laguntzeko, eta hori guztia energia eta klima trantsizio bidezkoa, **inklusiboa**, soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa lortzeko.

IV. KAPITULUA KLIMA NEUTRALITASUNA

17. artikulua.- Energia berriztagarriak

- 2. puntuan hau adierazi da: “Euskadiko energia berriztagarrien lurralde plan sektoriala baliogarria izan beharko da energia berriztagarriak (termikoak eta elektrikoak) modu antolatuan garatzen direla bermatzeko, ingurumen irizpideei eta irizpide tekniko eta ekonomikoei jarraikiz. Modu horretan, prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek bermeekin kudeatu ahal izango dituzte proiektuen izapidetze eta ezarpen prozesuak”. Iradokitzen dugu “sozio-laboralak” gehitzea; testua

honela geratuko litzateke:

2. Euskadiko energia berriztagarrien lurralde plan sektoriala sortzen eta onesten denean mugarrria ezarriko da energia horien ezarpenean. Hori guztia baliogarria izan beharko da energia berriztagarriak (termikoak eta elektrikoak) modu antolatuan garatzen direla bermatzeko, ingurumen irizpideei eta irizpide tekniko, ekonomiko eta **sozio-laboralei** jarraikiz. Modu horretan, prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek bermeekin kudeatu ahal izango dituzte proiektuen izapidetze eta ezarpen prozesuak.

- 3. puntuan hau adierazi da: *“Lurralde mailan, askotariko euskal administrazio publikoek araudiak eta antolamendu planak onetsiko dituzte eta horien bidez energia berriztagarrien erabilera sustatuko dute, itsasoko energia berriztagarriak barne. Gainera, horiek industria eta gizarte garapen orekatuarekin bateragarriak izan beharko dira, eta, azkenik, lurralde eta ingurumen ezarpena jasangarria izango da”*. Paragrafoaren amaieran, *“eta ondare naturala errespetatuko du”* idaztea gomendatzen dugu. Honela geratuko da testua:

Lurralde mailan, askotariko euskal administrazio publikoek araudiak eta antolamendu planak onetsiko dituzte eta horien bidez energia berriztagarrien erabilera sustatuko dute, itsasoko energia berriztagarriak barne. Gainera, horiek industria eta gizarte garapen orekatuarekin bateragarriak izan beharko dira, eta, azkenik, lurralde eta ingurumen ezarpena jasangarria izango da, **eta ondare naturala errespetatuko du**.

18. artikulua.- Mugikortasun jasangarria

- 1. puntuan hau adierazi da: *“Euskal administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, mugikortasun jasangarriagoa sustatuko dute, eta horretarako, oinezkoen eta txirrindularien mugikortasun aktiboa eta garraio bide eraginkorrakoak eta gutxiago kutsatzen dutenak bultzatuko dituzte aurrezpen eta eraginkortasun energetikoko, produktuaren, kostuei lotutako eta ondasunaren edo zerbitzuen bizi erabilgarriko irizpideak jarraituz. Azkenik, garraioaren deskarbonizazioa bultzatzen duten energia alternatiboak erabiliko dira”*.

Horren ordez, honela idaztea proposatzen dugu:

Euskal administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, mugikortasun jasangarriagoa sustatuko dute, garraio bidea deskarbonizatzen lagunduko duten energia alternatiboetan oinarritutakoa. Horretarako, garraio publikoa eta garraio bide eraginkorrakoak eta gutxiago kutsatzen dutenak sustatuko dituzte, hala nola ibilbide luze eta laburreko trenbide-zerbitzu eta -azpiegiturak areagotzea. Baita oinezkoen eta txirrindularien mugikortasun aktiboa sustatuz ere, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoaren, kostuen eta produktuaren, ondasunaren edo zerbitzuen bizitza baliagarriaren irizpideei jarraituz.

Justifikazioa: Mugikortasunerako jasangarriagoak eta eraginkorrakoak diren ezaugarriak garrantzi handiagoa ematea, eta, batez ere, trenezko garraioari garrantzi handiagoa ematea. Izan ere, lehen begiratuan berritzailea ez dirudien arren, gure iritziz, gutxiegi erabilitako bidea da dagoeneko sortutako egiturari dagokionez, eta ingurumen-soluzioak eta eraginkortasun gehiago eskaintzen du, “mugikortasun aktiboa” esaten zaienak baino askoz ere gehiago, horiek gutxietsi gabe.

- 10. puntuan hau adierazi da: *“Euskal administrazio publikoek garraioaren erabilera eraginkorra sustatuko dute eta gizartea kontzientziatuko dute, azalduz hainbat ikuspuntutatik beharrezkoa dela garraio jasangarria izatea, gizarteari, ingurumenari eta ekonomiari dagokienez, hain zuzen*

ere”.

Paragrafoaren amaieran honako hau gehitzea proposatzen da: “eta mugikortasun jasangarriko planak lantokietara, merkataritzaguneetara, osasunguneetara edo bestelako aglomerazioetara bultzatuz”.

Testua honela geratuko litzateke:

Euskal administrazio publikoek garraioaren erabilera eraginkorra sustatuko dute eta gizartea kontzientziatuko dute, azalduz hainbat ikuspuntutatik beharrezkoa dela garraio jasangarria izatea, gizarteari, ingurumenari eta ekonomiari dagokienez, hain zuzen ere; **eta mugikortasun jasangarriko planak lantokietara, merkataritzaguneetara, osasunguneetara edo bestelako aglomerazioetara bultzatuz.**

19. Artikulua. Ekonomia zirkularra.

Herri-administrazioei dagokienez, 2. puntuan adierazten denez, “hondakinak kudeatzeko eta urak tratatzeko instalazioetan sortzen duten karbono aztarna kalkulatu beharko dute eta plan bat izan beharko dute hori gutxitzeko eta aztarna hutsa edo negatiboa izan dadin, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria bada...”

Hainbat jarduera ekonomikori buruzko hurrengo artikuluetan (industria, merkataritza, turismoa, nekazaritza, arrantza eta abar) planteatzen da beren jarduera garatzeko karbono-aztarna kalkulatzeko eta hura minimizatzerazuzendutako plan bat egitea, aztarna hutsa edo negatiboa izan dadin, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria bada.

Gure ustez, eskakizun hori herri-administrazioetan hedatu behar da, eredugarriak izan behar duten erakunde gisa, garatzen dituzten jarduera/zerbitzu guztietara (adibidez, garraioa, eraikin publikoak, argiteria, etab.).

22. artikulua.- Nekazaritza, abeltzaintza, baso eta arrantza jarduerak

1.j) puntuan, “modu jasangarrian” gehitzea proposatzen dugu. Honela geratuko da testua:

j) Eraikinetan, etxebizitzetan eta altzari publikoetan egurra **modu jasangarrian** erabiltzea sustatzea eta baso biomasa energia iturri bezala erabiltzea bultzatzea

23. artikulua.- Ondare naturala kudeatzea.

b) letran “eta energia berriztagarrien instalazioetan” sartzea proposatzen da, eta testua honela geratuko da:

b) Hainbat sektoretan, besteak beste nekazaritzan, lurraldearen antolamenduan eta plangintzan, eraikuntzan, azpiegituretan **eta energia berriztagarrien instalazioetan**, baso kudeaketan edo turismoan politika eraginkorrak ezartzea eta sistema naturalak eta biodibertsitatea kontserbatzea eta emisioak gutxitzea sorrarazten duten baterako ekintzak eta praktika onak saritzea.

VI. KAPITULUA. TRANTSIZIO ENERGETIKOAREKIN ETA KLIMA-ALDAKETAREKIN LOTUTAKO ZEHARKAKO TRESNAK

39. artikulua.- Ezagutza eta hezkuntza bultzatzea.

2. puntuan, "gizarte-eragileen" gehitzea proposatzen da, eta honela geratuko da testua:

Helburu horiek lortzeko, hezkuntza, ingurumen, energia eta klima aldaketaren alorretan eskudunak diren euskal administrazio publikoek beraien jarduketak koordinatuko dituzte helburu horiek plangintza tresnetan sartzeko eta kontuan izango dute **gizarte-eragileen**, enpresen, elkarteen eta hezkuntza arautuko eta ez arautuko zentrozen ikuspegia.

40. artikulua.- Ikerketa, garapena eta berrikuntza.

2. atalean, hauxe gehitzea proposatzen dugu:

Euskal administrazio publikoek, beraien eskumenak egikaritzuz, lehentasunez babestuko dituzte **karbonoaren neutraltasuna sustatuko duten eta** herrialdeko indarguneak eta trebetasunak garatzea, negozio aukera berriak aprobetxatzea, eta, azken finean, enpresa, industria eta lurralde lehiakortasuna hobetzea ahalbidetzen duten teknologia eta proiektu berritzaileak.

41. artikulua.- Sentsibilizazioa eta informazio publikoa.

1. puntuak dio: *"Euskal administrazio publikoek trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorretan herritarrak informatzea eta kontzientziaztea xede duten sentsibilizazio ekintzak eta kanpainak gauzatuko dituzte"*.

Idea osatzea iradokitzen dugu, honako hau aipatuz:

Gidak editatuko dira eta informazio- eta komunikazio-kanpainak egingo dira energia-eraginkortasuna sustatzeko eta klima errespetatzen duten bizi-ohiturak bultzatzeko, biztanle-sektore guztiei zuzenduta. Gainera, ingurumen-boluntariorako ekintzak sustatuko dira arlo horietan.

44. Artikulua. Erosketa publikoko produktuen, zerbitzuen eta horniduren karbono-aztarna

Gogoeta orokorretan aipatu dugun bezala, honako kontu hauek planteatzen ditugu:

- Produktuaren karbono-aztarnaren kalkulari dagokionez, uste dugu 2. paragrafoan ezartzen den 6 hilabeteko epea ez dela egokia. Gure iritziz, egokiagoa izango litzateke epea erregistroari buruz sortzen den erregelamenduan zehaztea, une horretan kalkulu-metodologiak eskuragarri egongo baitira eta hobeto jakingo baitugu nola eragingo dien sektoreei.
- Zerbitzuen aztarnaren kalkulari dagokionez, enpresek antolaketa-aztarna kalkulatzeko dute (ISO 14064-1), eta beren jardueraren inpaktua ezagutzen dute oro har, ez zerbitzu jakin batena, are gutxiago enpresak garatu ez duen zerbitzu batena, hirugarrenek garatutakoa baizik. Gure ustez, horrelako gaiak kontuan hartu behar dira etorkizunean egingo diren arau-garapenetan eta baldintza-agirietan.
- Obren kasuan, xedapena berrikustea iradokitzen dugu. Ikusi batzorde honek III. puntuan aipatutakoa. Gogoeta orokorrak.

46. artikulua.- Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren alorreko zerga sistema

3. puntuak dio: *"Era berean, euskal administrazio publiko guztiek, beraien zerga eskumenen alorrean, pizgarrien eta zerga neurrien mekanismoak ezarriko dituzte hobariak emateko energia eraginkortasunean eta energia berriztagarrien ekoizpenean eta kontsumoan egindako inbertsioei eta*

zero emisioko ibilgailuak erosi eta erabiltzeari, eta lehentasuna izango dute aurrezpen handienak lortzen dituzten erabilerek, sektoreen deskarbonizazioak eta klima-aldaketara egokitzeak”.

“Ezarriko dituzte” beharrean “bultzatuko dituzte” ipintzea proposatzen dugu. Honela geratuko da testua:

“3. Era berean, euskal administrazio publiko guztiek, beraien zerga eskumenen alorrean, pizgarrien eta zerga neurrien mekanismoak **bultzatuko** dituzte hobariak emateko energia eraginkortasunean eta energia berriztagarrien ekoizpenean eta kontsumoan egindako inbertsioei eta zero emisioko ibilgailuak erosi eta erabiltzeari, eta lehentasuna izango dute aurrezpen handienak lortzen dituzten erabilerek, sektoreen deskarbonizazioak eta klima-aldaketara egokitzeak.

48. Artikulua. Administrazio-izapideak

Gogoeta orokorretan aipatu dugun bezala, iradokitzen dugu euskal administrazioek arreta berezia jartzea gai honetan, eta etorkizuneko lege honetatik ondorioztatuko diren administrazio-prozedurak ahalik eta gehien arindu eta sinplifikatuko dituzten mekanismoak garatzea.

V.- ONDORIOA

Euskadiko EGABren ustez egokia da *“Trantsizio energetikoari eta Klima-aldaketari buruzko Lege-aurreproiektua”* izapidetzea, organo aholku-emaile honek egindako oharrek kontuan izanda.

Bilbon, 2022ko uztailaren 27an

O.E. Presidentea

Emilia M. Málaga Pérez

Idazkari nagusia

Olatz Jaureguizar Ugarte